

214. zenbakia

Azpeitian zer?

Udal aldizkaria

**Emakumeen
pausoei segika**



Telefono interesgarriak

Zentralita	943 15 72 00
Hirigintza	943 15 71 91
Gizarte Zerbitzuak	943 15 71 92
Kultura	943 15 70 68
Kirolak	943 15 00 95
Parekidetasuna	943 15 79 28
Emakumeen Txokoa	943 15 70 55
Iturritxiki Ludoteka	943 15 11 79
Txiki-Txoko Ludoteka	943 15 05 16
Gazte Informazio Bulegoa (GIB)	943 15 71 60
Eguneko Zentroa	943 15 74 96
Liburutegia	943 15 71 95
Udaltzainak	943 15 13 13
Igerilekua	943 81 41 21
Kiroldegia	943 81 30 69
Udal Euskaltegia	943 81 19 47



Ale honetan zer?

Emakumeek egindako urratsak, ibilbide batean	3
Elkarrizketa	5
Azpeitiko emakumeen urratsetan barrena.....	6


Azpeititik kanpo bizi arren, zure etxean jaso dezakezu
Azpeitian Zer? aldizkari hau posta bidez. Egin eskaria
943 15 71 85 (Alkatetza) telefonoan.

Argitaratzailea: Azpeitiko Udala · Egilea: Prentsa bulegoa
Argazkiak: Azpeitiko Udala. · Diseinua: Sorland
Maketazioa: Sorland
Ale kopurua: 7.000 · L.G: SS - 1148/91

Herritarren Arreta Zerbitzua



Azpeitiko Udaleko lehen solairuan aurkitzen da Herritarren Arreta Zerbitzua. Dokumentuen erregistroa, errolda agiria atera, eskaera orokorrak zein lizentzia eskaerak edo kontsultak egiten dira bertan. Neguko ordutegian, astelehenetik ostiralera, 07:30etatik 14:30era izaten da zabalik; ostegunetan salbu. Egun horretan, 07:30etik 19:00etara, etenik gabe, eskaintzen zaie zerbitzua herritarrei.



Emakumeek egindako urratsak, ibilbide batean

Azpeitiko emakumeek herriari egindako ekarpena ezagutzeko ibilbide bat.

Horixe izan da *Matazak*. Azpeitiko Emakumeen Oroimen historikoa proiektuaren emaitza. Azpeitiko Emakumeen Mahaiak sustatuta, herriko emakume ugariren inplikazioari eta lanari esker osatu da. Urriaren 8an izan zen aurkezpena, eta, hemendik aurrera, nahi dutenean egin ahal izango dute herritarrek.

Bederatzi panelek gidatzen dute ibilbidea. Buztinzuriko Errebalean dago lehena, eta ikastoletako lehen andereñoek eta auzo eskoletakoek izan zituzten eragozpenak kontatzen ditu. Idatzizko azalpen labur bat dago panel guztietan, baina, horrez gain, QR kode bat ere ageri da. Kode hori eskuko telefonoarekin eskaneatuta, audio bat

ateratzen da, eta emakumeak entzuten dira, ibilbideko puntu horri dagokion gaiari buruz hizketan.

Errebaletik behera, pausoz pauso, Alde Zaharreko kaleetan barrena jarraitzen du ibilbideak.



Emakumeek egindako urratsak, ibilbide batean

Alpargaterei, neskame eta zerbitzariei, baserritarrei, dendariei, Telefonikako langileei, kulturgileei eta lixiberei buruz hitz egiten da gainerako paneletan.

Emakume Txokoaren ondoan dago azkena, politikagintzari dagokiona, Frankismo garaian emakumeek errepresioaren aurka egindako borroka kontatzen du, bai eta emakumeek militantzian egindako ekarpena ere.

BELAUNALDIARTEKOTASUNA SUSTATZEN

Matazak proiektua osatu ahal izateko, 2021eko apirilean elkartu ziren aurreneko aldiz herriko hainbat emakume, adin guztietakoak. Izan ere, belaunaldi desberdinetako emakumeen hartu-emanak sustatzea ere bazen proiektuaren beste helburuetako bat.

Horretarako, elkar ezagutzeko espazioak sortu ziren, eta Azpeitiko emakumeek maila kolektiboan nahiz norbanako gisa egindako lanez, jardueraz, istorioez eta kontuez aritu dira elkarrekin.

Proiektuan zehar, hogeiren bat emakume ere elkarriketatu zituzten. Informazio ugari jaso, bildu eta kontrastatu zuten, eta horrela hartu du forma ibilbideak.





Miren Arrieta Artola
Parekidetasun batzordeburua

“Emakumeek historikoki egindako ekarpenari merezitako aitortza egitea izan da helburua”

Proiektuaren azken emaitza ibilbide bat izan da. Zergatik?

Hasieratik, proiektuaren muina bere formatua izan da, hau da, herrian kokatutako ibilbide fisiko eta pedagogiko bat sortzea. Helburua izan da herriko espazio publikoa, sinbolikoki, emakumeen presentziaz okupatzea. Horrez gain, emakumeek lehen zer espazio okupatzen zituzten eta nolakoak ziren ezagutarazi nahi izan dugu. Ibilbidea herriko erdigunean izatea erabaki genuen, ahalik eta irisgarriena izateko.

Aurrerantzean zer jarraipen izango du Matazak proiektuak?

Ibilbidea herriratzeko dinamikak egiteko asmoa dugu. Ikastetxeekin eta eragileekin elkarlana bultzatu nahi dugu. Turismoaren ikuspegitik ere ekarpen bat egingo digula uste dugu, herria ulertzeko eta ezagutzeko beste modu bat proposatzen baitugu. Informazio osatuagoarekin liburuxka bat ere atera nahi dugu.

Urriaren 8an aurkeztu zenuten ibilbidea. Han izan ziren proiektuan parte hartu duten emakumeetako batzuk. Zer iruditu zitzaizen emaitza?

Haiekin iritziak trukatu ostean, lanak merezi izan duela ondorioztatu dugu. Uste dugu, oso xume bada ere, aitortza eta errekonozimendu horretan asmatu dugula, eta, beraz, horretan jarraitu behar dugula.

Dagoeneko edonork egin dezake Matazak proiektuaren bidez sortutako ibilbidea. Miren Arrieta Artola Parekidetasun batzordeburuak azaldu duenez, aurrera begira, herriko eragileekin eta ikastetxeekin lanketa bat egin nahi dute, eta liburu bat ateratzeko asmoa dute.

Zer helbururekin sortu zen Matazak proiektua?

Oroimen historikoa berreskuratzea behar-beharrezkoa da egungo jendarte ulertzeko. Baina oroimen historikoko edukietan sartzen bagara, oro har, gizonak izaten dira protagonista. Jakin badakigu, ordea, emakumeen jarduerarik, zaintza lanik eta kemenik gabe Azpeitiko historia ez litzatekeela ezagutzen dugun bezalakoa izango. Horregatik, emakumeek historikoki egindako ekarpenari merezitako aitortza egitea izan da helburua, haien jarduna goraipatzea eta errekonozimendua ematea.

Elkarlanean oinarritu da Matazak. Nola hartu dute proiektua herriko emakumeek?

Alde batetik, emakume talde bat egon da, proiektua gidatzeko. Bestetik, hoguei emakume inguru elkarriketatu ditugu. Emaitza ez ezik, prozesua bera ere oso aberasgarria izan da. Izan ere, balio izan du belaunaldi desberdinen arteko topaguneak sortzeko.

Azpeitiko emakumeen urratsetan barrena

1) IKASTOLAKO ANDEREÑOAK ETA AUZO ESKOLAK

1965ean ekin zion bideari ikastolak Azpeitian, Buztinzuriko Errebalaren amaieran zegoen jesuiten eraikinean. Euskara eta pedagogia aurrerakoiak oinarri hartuta hasi ziren lanean hainbat emakume. Aipagarriak izan ziren auzo eskolak ere. Baserri gunetako haur batzuek ez zuten egunero eskolara joateko aukerarik, eta ia auzo guztietan jarri zituzten auzo eskolak.

2) ALPARGATERAK

Alpargatagintza ogibide garrantzitsua izan zen XX. mendearen hasierako eta erdialdeko emakume azpeitiarrentzat. Etxean lan egin ohi zuten, baina kalera ere sarri ateratzen ziren, beste alpargatagile batzuen konpainian jarraitzeko lanean. Elkartzeko ohiko lekuak izaten ziren errebala eta pilotalekua.

3) NESKAMEAK ETA ZERBITZARIAK

1960ko hamarkadan, Azpeitiko neska gazte ugari joan zen Donostiara, hango etxeetan haurrak zaintzera eta zerbitzari jardutera. Zeregin ugari izaten zituzten: seme-alabak eskolara eramane, etxera ekarri, otorduak zerbitzatu... Igande arratsaldea bakarrik izaten zuten jai.

4) BASERRITARRAK

Baserrietan, etxeko lanak egiteaz, laborantzaz, otorduez, abereak zaintzeaz, haurrak hezteaz eta abar arduratzen ziren emakumeak. Azokako salmenta ere haien zeregina zen, bai eta esne banaketa ere. Azoka egunero egiten zen arren, berezia izaten zen astearteetako. Asto-gurdiz joaten ziren Berdura plazara, eta Astotegian uzten zuten gurdia.

5) DENDARIAK

Era askotako dendak zeuden Azpeitian: mertzeriak, janari-dendak, gozotegiak, arropa-dendak, upeltegiak, altzari dendak, fruta dendak, arma dendak... Gehienetan, emakumeek kudeatzen zituzten. Denda haiek nortasuna ematen zieten kaleei, eta harremanak egin eta sendotzeko aukera ere bai saltzaile eta erosleei. Inguruko herrietako jendeak ere sarri jotzen zuen Azpeitiko dendetara.

6) TELEFONIKAKO LANGILEAK

1965ean ireki zuten Gipuzkoako lehenengo telefonia zentroa Azpeitian. Emakume askorentzat soldatapeko lan mundura txertatzeko lehen pausoa izan zen, eta autonomia ekonomikoa lortzeko aukera eman zien enpresa hartan lan egiteak. Telefonisten eraginez, gainera, herriko beste enpresa batzuetan ere hasi ziren lanean emakumeak.



AZPEITIA

41. EUSKAL ANTZERKI TOPAKETAK

2023ko
udazkena



WWW.ANTZERKITOPAKETAK.EUS



AZPEITIA 41. EUSKAL
ANTZERKI
TOPAKETAK

ANTOLATZALEA

Azpeitia
Denontzat

LAGUNTZALEAK



TXOTXONGILO ERAKUSKETA ETA TAILERRA CORRADO MASACCI

AZAROAK 1-15
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
BETARRHAM UDAL ARETOAN

EZAGUTZEN DUZU TOPIC? ERAKUSKETA TOPIC-EN ESKUTIK

AZAROAK 3-18
IKUSKIZUNAK DAUDEN EGUNETAN SOREASU
ANTZOKIKO SARRERAN

SALBE, PUBLIKOA GOAZ ANTZERKI TALDEA

AZAROAK 2, OSTEGUNA
19:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
HELDUENTZAT

HONDAMENDIA ARTEDRAMA

AZAROAK 3, OSTIRALA
19:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN
HELDUENTZAT

HIGA EROMEN PRODUKZIOAK

AZAROAK 5, IGANDEA
19:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN
HELDUENTZAT

IDENTITARTEAK GILTIXIKARO TALDEA

AZAROAK 9, OSTEGUNA
19:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
HELDUENTZAT

ITSAS BEHERA PEZ LIMBO

AZAROAK 10, OSTIRALA
19:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN
HELDUENTZAT

TROIA KAMIKAZ KOLEKTIBOA

AZAROAK 11, LARUNBATA
12:30ETAN, SOREASUKO PLAZAN
KALE ANTZERKIA - DENENTZAT

TXOTXONGILOAK SORTU NAHI? GAZTETXOENTZAKO TAILERRA TOPIC-EN ESKUTIK

AZAROAK 12
DINAMOA SORMEN GUNEAN

LAGUN BELTZ ASKO ADOS TEATROA

AZAROAK 12, IGANDEA
19:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN
HELDUENTZAT

ESKOLA ANTZERKIA

AZAROAK 13-17
SOREASU ANTZOKIAN

(H)ONDOKO GELA LES BOBE BOBE ELKARTEA

AZAROAK 16, OSTEGUNA
19:00ETAN, DINAMOA SORMEN GUNEAN
HELDUENTZAT

ARRAINAK BIHOTZEAN MARMAR TEATROA

AZAROAK 18, LARUNBATA
17:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN
FAMILIENTZAT

BADON* 2023-2024 KORRIKA KULTURALA

AZAROAK 23, OSTEGUNA
AURRE ESTREINALDIA
19:00ETAN, SOREASU ANTZOKIAN
HELDUENTZAT

TOPAKETETAKO SARI BANAKETA